**UDAL OSOKO BILKURA / SESION PLENARIA MUNICIPAL**

**2019ko MARTXOAK 26a / 26 - MARZO - 2019**

**TOKIA / LUGAR:** SALA CAPITULAR DE LA CASA CONSISTORIAL DE DURANGO

**EGUNA / FECHA:** 26/03/2019

**HASIERA / INICIO:** 17:00 horas

**BERTARATUAK / ASISTENTES:**

**PRESIDENTEA / PRESIDENTA (EAJ-PNV):**
Alkate andrea, Doña Aitziber Irigoras Alberdi

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EAJ-PNV):**
2. Alkateordea, Doña Maria José Balier Orobio-Urrutia andrea
3. Alkateordea, Don Iker Oceja Sobrón jauna
4. Alkateordea, Doña Goiztidi Díaz Basterra andrea
5. Alkateordea, Don Humberto Jaio Sagasti jauna
6. Alkateordea, Don Jose Maria Andres Ibañez de Garaio jauna
Doña Olaia Albizu Gallastegi andrea
Don Harri Guridi Ordeñana jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (EH BILDU)**
Don Daniel Maeztu Perez jauna
Doña Eider Uribe Padilla andrea
Don Jon Andoni del Amo Castro jauna
Don Jon Bingen Oier Landabidea Aranburu jauna
Don Aritz Bravo Zubillaga jauna
Don Iker Urkiza Quilez jauna
Doña Maria Soledad Juaristi Alberdi andrea

**HERRIAREN ESKUBIDEA (SQ-2D)**
Don Julian Rios Santiago jauna
Don Jorge Varela Dorrio jauna
Don Francisco Javier Lopez Lakunza jauna

**ZINEGOTZIAK / CONCEJALES (PSE-EE (PSOE))**
1. Alkateordea, Doña Pilar Ríos Ramos andrea
Don Mauricio Garcia Martin jauna

**EZ ETORTZEA JUSTIFIKATU DU/EXCUSA SU ASISTENCIA**
Don Francisco Garate Mintegui jauna (PP)

**KONTU-HARTZAILE / INTERVENTOR**
Don Jokin Palacio Pérez jauna

**IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL**
Don Ramón Sorarrain Tolosa jauna

**IZAERA / NATURALEZA:** OHIKOA / ORDINARIA
**DEIALDIA / CONVOCATORIA:** LEHENA / PRIMERA

Alkate andreak batzarrari hasiera eman ondoren, 17:00ak direnean, bilera honetako gai-zerrenda osatzen duten asuntoak eztabaidatzeari ekin zaio. Gaiak ondorengo hauek dira:

Abierta la sesión por la Alcaldesa-Presidenta, siendo las 17:00 horas, se pasó a tratar los temas que componen el Orden del Día de la presente sesión y que son los siguientes:

**BAT.- BIDEZKOA BALITZ, AURREKO AKTAREN ZIRRIBORROA IRAKURTZEA ETA ONARTZEA: 2018KO ABENDUAREN 18KO OHIKOA.**

**UNO.- LECTURA Y APROBACIÓN, SI PROCEDE, DEL BORRADOR DEL ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE 18 DE DICIEMBRE DE 2018.**

IRAKURRI OSTEAN aurreko batzarreko akta-zirriborroa, 2018ko abenduaren 18ko ohikoa hain zuzen ere.

DADA LECTURA al borrador del Acta de la sesión anterior, correspondiente a la Ordinaria de 18 de Diciembre de 2018.

BOZKETA egin ostean, Udaleko Osoko Bilkurak, aho batez, **ONARTU EGITEN DU 2018ko Abenduaren 18ko** Osoko Bilkuraren ohiko akta.

PREVIA votación realizada al efecto, el Ayuntamiento Pleno, por unanimidad, **APRUEBA** el Acta del Pleno Ordinario de **18 de Diciembre de 2018.**

**BI.- INTERESDUN GAIEN BERRI EMATEA:**

**DOS.- DACIÓN DE CUENTA DE ASUNTOS DE INTERÉS:**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Gogoraraztea aste honetako domekan 82 urte beteko direla gure uria bonbardatua izan zela; horren inguruan antolatu izan dira bai Gerediaga elkartearekin eta baita Ongi Etorri Errefuxiatuak taldearekin hainbat ekimen, eta ekitaldiak aurreko astean aurkeztu genituen.

Dena den, martxoaren 31n betiko moduan ekitaldi instituzionala ere egingo dugu: alde batetik, goizeko 8:30ean kanposantuan lore eskaintza bat egingo da, kanpai eta sirena hotsak entzungo diren bitartean; bestalde, eguerdiko 12:30ean Benita Uribarrena parkean urtero egiten den ekitaldia egingo dugu hildako guztien oroimenez. Herritar guztiak gonbidatuta gaude ekitaldi horietara.

Bigarren kontu ematea da datorren apirilaren 1ean, goizeko 10:00etan Hauteskunde Orokorretako hauteskunde-mahaiak nortzuk osatuko duten jakiteko zozketa egingo dugula, plenoan egin beharra dago, publikoa da.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV):** Quisiera recordar que este domingo se cumplen 82 años del bombardeo de nuestra villa, fecha por la que se han organizado una serie de eventos junto con la asociación Gerediaga y con el grupo Ongi Etorri Errefuxiatuak, que fueron presentados la semana pasada.

En cualquier caso, el 31 de marzo celebraremos también un acto institucional: en primer lugar, a las 8:30 se realizará una ofrenda floral en el cementerio, a la vez que se podrán escuchar campanas y sirenas; por otro lado, a las 12:30 se celebrará el habitual evento que se lleva a cabo todos los años en recuerdo a todas las personas fallecidas. Toda la ciudadanía está invitada a sumarse a los actos.

En segundo lugar, el próximo 1 de abril, a las 10:00, se realizará el sorteo de las mesas electorales de las Elecciones Generales. Hay que hacerlo en la sesión plenaria, ya que se trata de un sorteo público.

Bestalde, zuen eskura dauzkazue espediente guztiak Idazkaritza Nagusian.

Udalbatza jakitun eta ados adierazten da.

**HIRU.- LANDAEDERRA ERABILTZEKO PREZIO PUBLIKOAREN ALDAKETA PROPOSAMENA. (GAZTERIA ETA KIROLAK BATZORDEAREN IRIZPENA 2019KO MARTXOAREN 7KOA).**

IRAKURRI OSTEAN Gazteria eta Kirolak Batzordearen irizpena 2019ko martxoaren 7koa, eta honako hau dioena:

"*2019ko martxoaren 7ko Gazteria eta Kirol Batzordean aho batez adostu zen Landaederra erabiltzeko Prezio Publikoaren aldaketa ondorengo taulari jarraituz:*

| | | |
|---|---|---|
| *Egonaldia* | | *40 € /eguneko* |
| *Fidantza* | | *50 €* |

*Bozkaketak ondorengo emaitza izan zuen:*

- *Alde: José María Andrés (EAJ-PNV); Harri Guridi (EAJ-PNV); Mauricio García PSE-EE (PSOE); Eider Uribe (EH Bildu) eta Julián Ríos (Herriaren Eskubidea).*
- *Kontra: Ez dira ematen.*
- *Abstentzioak: Ez dira ematen*."

* Idazkari Nagusia **Sorarrain Tolosa jaunak**: Gazteria eta Kirol batzordeak aho batez onartu zuen martxoaren 7an Landaederra erabiltzeko prezio publikoaren aldaketa. Orain 40 euro eguneko izango da, kontuan hartu gabe zenbatek alokatzen duten; era berean, fidantza eguneratu egin da, eta 50 eurokoa izango da.

Por otra parte, tienen ustedes a su disposición todos los expedientes en la Secretaría General.

El Ayuntamiento Pleno se da por enterado.

**TRES.- PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DEL PRECIO PÚBLICO DE LANDAEDERRA. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE JUVENTUD Y DEPORTE DE 7 DE MARZO DE 2019).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Juventud y Deporte de 7 de marzo de 2019, del tenor literal siguiente:

"*En Comisión Informativa del área de Juventud y Deporte de 7 de marzo de 2019 se acordó por unanimidad la modificación de Precio Público para el uso de Landaederra recogido en la siguiente tabla:*

| | | |
|---|---|---|
| *Estancia* | | *40 € día* |
| *Fianza* | | *50 €* |

*Se votó la propuesta, con el siguiente resultado:*

- *A favor: José María Andrés (EAJ-PNV); Harri Guridi (EAJ-PNV); Mauricio García PSE-EE (PSOE); Eider Uribe (EH Bildu); Julián Ríos (Herriaren Eskubidea).*
- *En contra: No se dan.*
- *Abstenciones: No se dan*."

* Secretario General **Sr. Sorarrain Tolosa**: La Comisión de Juventud y Deporte, celebrada el 7 de marzo, aprobó por unanimidad la modificación de los precios de acceso de Landaederra. A partir de ahora será de 40 euros por día, independientemente del número de personas que lo alquilan. Asimismo, se ha procedido a actualizar la fianza, que pasará a ser de 50 euros.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Rios Santiago jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Gazteria eta Kirol Batzordean esan genuen bezala, aldaketa honen alde gaude; uste dugu interesgarria dela formatu hori, eta lagungarria izan daitekeela Landaederrara joateko. Uste dugu 40 euro gehienez ere 15 pertsonarentzat –etxean egon daitezkeenak– interesgarria izan daitekeela erabiltzeko, eta nolabaiteko ekarpen bat jasotzeko. Ondoren egingo dira hobekuntza txikiak.

* **Uribe Padilla andreak (EH Bildu)**: Aldaketa ondo ikusten dugu, diru aldetik ez da asko nabarituko eta nahi duguna da jendeak jakitea zelako etxea daukagun, mundu guztiak erabiltzekoa dela, eta, gainera, ez da garestia.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, onartzen du:

**Lehena**.- Landaederra erabiltzeko Prezio Publikoaren aldaketa onartzea ondorengo jarraituz:

| | | |
|---|---|---|
| Egonaldia | | 40 € /eguneko |
| Fidantza | | 50 € |

**Bigarrena**.- Honako Prezio Publikoa aldaketa, bertako Zerbitzu eta jardueretakoak, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen denean sartuko da indarrean.

Hori guztia abenduaren 16ko 9/2005 Toki Ogasunei buruzko Foru Arauko 50. artikuluak ezarritakoarekin bat etorrita.

Prezio Publiko aldaketak udalaren webgunean www.durango.eus jasoko da

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Rios Santiago (Herriaren Eskubidea)**: Como dijimos en la Comisión de Juventud y Deporte, estamos a favor de esta modificación, creemos que es interesante este formato que puede ayudar a que se asista a Landaederra y que 40 euros para 15 personas máximo -que pueden estar en casa- puede ser interesante para el uso y para recibir algo de aportación para luego ir haciendo pequeñas mejoras.

* Concejala **Sra. Uribe Padilla (EH Bildu)**: Vemos bien la modificación, que no tendrá una gran repercusión económica, y lo que queremos es que la ciudadanía sepa qué tipo de instalación tenemos a disposición del conjunto de la ciudadanía y a un precio asequible.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda:

**Primero**.- Aprobar la Modificación del Precio Público para el uso de Landaederra recogido en la siguiente tabla:

| | | |
|---|---|---|
| Estancia | | 40 € día |
| Fianza | | 50 € |

**Segundo**.- La modificación del Precio Público por la prestación del servicio al que el presente Acuerdo se refiere, entrará en vigor a partir de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el Artículo 50 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de Diciembre, de Haciendas Locales.

La referida modificación del Precio Público podrá ser consultado en la página WEB de este Ayuntamiento: www.durango.eus.

**LAU.- 2018. URTERAKO LANGILE PUBLIKOEN ORDAINSARIAREN IGOERA. (OGASUN, PERTSONALA ETA UDALTZAINGOA BATZORDEAREN IRIZPENA, 2019KO MARTXOAREN 20KOA).**

IRAKURRI OSTEAN Ogasun, Pertsonala eta Udaltzaingoa Batzordearen irizpena 2019ko martxoaren 20koa, eta honako hau dioena:

*"2018. urterako langile publikoen ordainsariaren igoera hasitako espedientea aztertu da.*

*Giza Baliabideetako arduradunak egindako proposamena ikusita, eta honi ERANSKIN gisa atxikita dago barneratuta.*

*EAJ/PNV (2) eta PSE-EE (PSOE) (1) Udal taldeen aldeko botoaz, eta EH Bildu (1) eta Herriaren ESKUBIDEA (1) Udal taldeen abstentzioekin honako ERABAKI hau luzatzen zaio Osoko Bilkurari:*

*LEHENENGOA.- Durangoko Udalaren eta bere erakunde autonomoen langile publikoen ordainsariak %1,5 igotzea 2017. urtearekin alderatuz. Igoerak atzeraeragina izango du 2018ko urtarrilaren 1etik.*

*BIGARRENA.- %0,25 igotzea, atzeraeraginez, 2018ko urtarrilaren 1etik."*

* Kontu-hartzaile **Palacio Perez jaunak**: Ogasun Batzordean azaldu eta diktaminatu zen moduan, proposatzen da akordioa hartzea, Durangoko Udaleko langileen ordainsariak igotzeko, ondoreak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera direla.

Akordio honetarako esparru juridikoa zera da, Estatuko Aurrekontu Orokorren Legea, uztailean onartu zena; hala, ahalbidetzen du soldata-masaren % 1,5 handitzea urtarrilaren 1etik aurrera, eta bigarren seihilekotik aurrera beste 0,25 igotzeko aukera ere aurreikusten du –hau da, 2018ko uztailaren 1etik aurrera–, baldin eta Estatuko BPGd % 3,1 baino gehiago handitzen bada.

**CUATRO.- INCREMENTO RETRIBUTIVO DE LOS EMPLEADOS PÚBLICOS PARA EL EJERCICIO 2018. (DICTAMINADO POR LA COMISIÓN INFORMATIVA DE HACIENDA, PERSONAL Y POLICÍA MUNICIPAL DE 20 DE MARZO DE 2019).**

DADA LECTURA al dictamen emitido por la Comisión Informativa de Hacienda, Personal y Policía Municipal de 20 de marzo de 2019, del tenor literal siguiente:

*"Visto el expediente incoado para la aprobación del incremento retributivo de los empleados públicos para el ejercicio 2018.*

*Vista la propuesta realizada por la responsable de Recursos Humanos, que se adjunta como ANEXO al presente.*

*Con el voto favorable de los representantes de EAJ/PNV (2) y PSE-EE (PSOE) (1) y, la abstención de los representantes de EH Bildu (1) y Herriaren Eskubidea (1), se propone al Ayuntamiento Pleno el siguiente ACUERDO:*

*PRIMERO.- Incrementar un 1,5% las retribuciones de los empleados públicos del Ayuntamiento de Durango y sus OO.AA. respecto a las retribuciones del año 2017 con efectos retroactivos a 01/01/2018.*

*SEGUNDO.- Incrementar un 0,25% con efectos retroactivos desde el 01/07/2018."*

* Interventor **Sr. Palacio Perez**: Tal y como se expuso y se dictaminó en la Comisión de Hacienda, se propone adoptar el acuerdo para incrementar las retribuciones de los trabajadores del Ayuntamiento de Durango con efecto desde 1 de enero de 2018.

El marco jurídico para este acuerdo nace desde la ley de presupuestos generales del estado que en julio fue aprobada y posibilitaba el incremento de hasta el 1,5% de la masa salarial desde el 1 de enero con un posible incremento adicional de un 0,25 para el segundo semestre -es decir, desde el 1 de julio de 2018 en adelante-, si el PIB a nivel estatal se incrementara más de un 3,1%.

Uztaileko Ministroen Kontseiluak ere onartu zuen beste igoera bat, eta, ildo horretatik, 2018ko urriaren 18an Eusko Jaurlaritzak ere tankera bereko akordio bat argitaratu zuen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, zeinak udalei eragiten baitie, udaleko langileen jomuga-osagarria zehazte aldera.

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen Legeak 22. artikuluan jasotzen denaren arabera, osoko bilkurari dagokio berariazko osagarria zehaztea, eta, aurretik zehaztutako legezkotasun-esparruan barruan, ordainsariak igotzen noraino iritsi nahi den erabakitzea; hau da, zehaztu liteke 1,5 urte osorako, gehi 0,25 bigarren seihilekorako, eta tarte horren barruan mugi liteke Udala.

Proposatzen den akordioa zera da, gehienekora iristea: hala, % 1,5 urte osorako eta % 0,25 osagarri hori bigarren seihilekotik aurrera.

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* 1. Alkateordea **Rios Ramos andreak PSE-EE (PSOE)**: Aldeko botoa emango diogu. Ados gaude hazkunde horrekin, legeak baimentzen digun mugaraino.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Kontu-hartzailearen txostenek dioten moduan, proposatzen den igoera hori legeak proposatutakoa da. Txostenaren arabera, 2018an kanpoan geratzen den zatia % 0,3 da, produktibitate-plan bat garatuta ez edukitzeagatik. Badakigu % 0,3 hori 2019rako ere baldintza berberetan dagoela planteatuta; hori dela eta, gustatuko litzaiguke galdetzea zer ari den egiten 2019an gerta ez dadin 2018an gertatu dena, eta % 0,3 hori aplikatu ezinik ez geratzeko.

* **Maeztu Perez jaunak (EH Bildu)**: Proposamen honen alde bozkatuko dugu, ez hainbeste legeak horrela jasotzen duelako, baizik eta bere garaian ere, sektore publikoko langileen erosmen-ahalmena kaltetuta ikusi zenean kontra agertu ginelako, eta orain erosmen ahalmen hori errekuperatzeko uste dugulako mota honetako neurriak beharrezkoak direla.

En el Consejo de Ministros de julio también se aprueba este segundo incremento y en esa misma línea, se publica el 18 de octubre de 2018 en el Boletín Oficial del País Vasco un acuerdo en el mismo sentido por parte de Gobierno Vasco, que afecta al ayuntamiento de cara a determinar el complemento de destino de los trabajadores del ayuntamiento.

Como recoge la Ley de Bases de Régimen Local en el artículo 22, corresponde al pleno la determinación del complemento específico y la determinación del límite de hasta dónde quiere llegar el pleno para ese incremento de retribuciones dentro del marco de legalidad expuesto anteriormente; es decir, se puede alcanzar hasta el 1,5 para todo el año más el 0,25 para el segundo semestre, y en ese rango es donde se puede mover el ayuntamiento.

El acuerdo que se propone es llegar a máximos, incrementar el 1,5% para todo el año y el 0,25% adicional para el segundo semestre.

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* 1ª Tnte. de Alcalde **Sra. Ríos Ramos PSE-EE (PSOE)**: Vamos a votar a favor, estamos de acuerdo con este incremento que es hasta donde nos permite la ley.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea)**: Como dicen los informes del Interventor, la subida que se propone es la que recoge la ley. Según este informe, la parte que quedaría fuera en 2018 es un 0,3% al no tener desarrollado un plan de productividad. Este mismo 0,3% sabemos que está planteado en las mismas condiciones para el 2019, por lo que nos gustaría preguntar qué se está haciendo para que en 2019 no ocurra lo que ha pasado en 2018 y este 0,3% se quede sin poder aplicar.

* Concejal **Sr. Maeztu Perez (EH Bildu)**: Vamos a votar a favor de esta propuesta, no tanto porque así lo establezca la ley, sino porque ya en su día nos manifestamos en contra, cuando vimos que había sido mermada el poder adquisitivo de los trabajadores y de las trabajadoras.

Hori, edukiaren inguruan; formari dagokionez, esatea alde batetik, soldataren inguruan, igotzearen alde gaudela, eta, baina badaudela beste atal batzuetan eztabaidatu beharreko kontuak, Kontu-hartzailearen txostenean agertzen den bezala, beste plangintza batzuekin lotutakoak, adibidez, eragingarritasunarekin edo lanpostu bateragarrien arteko osagarri espezifikoen errebisioaren inguruan edo elkarkidetzari egiten diren ekarpenen ingurukoak.

Horretarako, lehen esan den bezalaxe, eraginkortasun planak martxan jarri behar dira edo lanpostuen osagarri espezifikoen errebisioa jarri behar da martxan. Beraz, soldatarekin zerikusia duten atalak igotzearen alde agertuko gara, baina beste atal batzuetan eztabaidatu beharko dugu.

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV):** Gure aldeko bozka emango diogu.

* **Varela Dorrio jaunak (Herriaren Eskubidea):** Jakinarazten dugu aldeko botoa emango dugula, ikusirik % 0,3 kanpoan geratuko dela 2018an, kontu-hartzailetzaren txostenean jasotzen den moduan, produktibitatearen hobekuntza-plan bat falta izatearen ondorioz. Hori hala, berriro ere galdetuko dugu zer egiten ari den gaur egun, 2019an ez dadin errepikatu egoera bera, eta ez dadin kanpoan geratu % 0,3 hori.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV):** Galdera apuntatuko dut eta erantzuna helaraziko zaizue.

Txostenak, bai Udal-Kontu-Hartzailearen, bai Giza Baliabide-Arduradunaren, IKUSITA.

BOZKETA egin ostean.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez, onartzen du:

**LEHENENGOA.**- Durangoko Udalaren eta bere Erakunde Autonomoen langile publikoen ordainsariak %1,5 igotzea 2017. urtearekin

En este sentido, consideramos necesarias este tipo de medidas, con el fin de recuperar el poder adquisitivo perdido. Eso en cuanto al contenido. Con respecto a la forma, quisiera destacar, en primer lugar, que estamos a favor de la subida, pero que también existen otros aspectos que hay que discutir en otras áreas, tal y como queda reflejado en el informe de Intervención, pero relacionadas con otras planificaciones, como la efectividad o la revisión del complemento específico entre los puestos de trabajo complementarios, o incluso las aportaciones realizadas a Elkarkidetza.

Para ello, como hemos afirmado anteriormente, han de ponerse en marcha planes de efectividad, o hay que poner en marcha la revisión de los complementos específicos de los puestos de trabajo. Por tanto, estaremos a favor de la subida de los componentes salariales, pero se habrá de debatir en cuanto a otros componentes.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV):** Nosotros votaremos a favor.

* Concejal **Sr. Varela Dorrio (Herriaren Eskubidea):** Adelantar que vamos a votar a favor, y viendo que el 0,3% en 2018 se queda fuera como recoge el informe de Intervención debido a la falta de un plan de mejora de la productividad, reiteramos la pregunta de qué se está haciendo a día de hoy para que en 2019 no se repita esta situación y no se vuelva a quedar fuera este 0,3%.

* Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV):** Anotaré la pregunta y se les trasladará la respuesta.

VISTOS los Informes, tanto del Interventor Municipal, como de la Responsable de Recursos Humanos.

PREVIA votación realizada al efecto.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad, acuerda:

**PRIMERO.**- Incrementar un 1,5% las retribuciones de los empleados públicos del Ayuntamiento de Durango y sus Organismos Autónomos, respecto a las retribuciones del año

alderatuz. Igoerak atzeraeragina izango du 2018ko urtarrilaren 1etik.

**BIGARRENA**.- %0,25 igotzea, atzeraeraginez, 2018ko urtarrilaren 1etik."

2017 con efectos retroactivos a partir del 1 de Enero de 2018.

**SEGUNDO**.- Incrementar un 0,25% con efectos retroactivos desde el 1 de Julio de 2018.

**BOST.- APIRILAKO OSOKO BILKURAREN EGUNA ALDATZEKO PROPOSAMENA.**

**CINCO.- PROPUESTA DE MODIFICACIÓN DE LA FECHA DEL PLENO ORDINARIO DEL MES DE ABRIL.**

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Kontaktuan egon gara bozeramaileen artean, eta atzo proposatu genuen hurrengo ohiko plenoa apirilaren 30etik apirilaren 10era pasatzea.

* Alcaldesa, **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Hemos estado en contacto entre los Portavoces, y ayer propusimos trasladar el pleno ordinario del 30 de abril al 10 de abril.

UDALEKO OSOKO BILKURAK, aho batez batzarrean direnez, hurrengo osoko bilkura egin beharrean **2019ko apirilaren 18an** aurreratzea onartu du.

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por unanimidad de los presentes, acuerda adelantar la sesión plenaria ordinaria del mes de Abril al día **18 de abril de 2019**.

* Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Eskaerak eta itaunetara pasatu baino lehen ezohiko mozio bat daukagu. Lehenengo urgentzia bozkatu beharra dago.

* Alcaldesa, **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Antes de dar comienzo a los ruegos y preguntas, tenemos una moción extraordinaria. En primer lugar, debemos votar la urgencia.

Gai-zerrendatik kanpo, eta urgentzia aho batez onartu eta gero, Durangoko Senideak aurkezturiko mozioa barneratzen da:

Fuera del orden del día y previa declaración de urgencia, aprobada por unanimidad, se incluye la siguiente Moción, presentada por Durangoko Senideak.

**Durangoko Senideak-en izenean Asier Bilbao Mazaga jaunak aurkezturiko Mozioa, Aitziber Coello Onandia andrearen egoerari buruzkoa. (Sarrera Erregistroa: 2019002866, 2019ko Martxoaren 22koa).**

**Moción presentada por Don Asier Bilbao Mazaga, en representación de Durangoko Senideak, relativa a la situación de Doña Aitziber Coello Onandia. (Registro de Entrada nº 2019002866, de 22 de Marzo de 2019).**

* **Senideak plataformako kide batek** mozioa irakurri du (euskaraz):

* **Un miembro de la plataforma Senideak** da lectura a la siguiente moción:

*"Aitziber Coello Onaindiak Durango utzi zuen 2.000. urtean. Geroztik 19 urte igaro dira, eta hauetako 15 espetxean eman ditu. Legeak aipatzen dituen birgizarteratze eta berreziketa arrastorik ez inon, mendekua baino ez.*

*"Aitziber Coello Onaindia dejó Durango en el año 2000. Han pasado ya 19 años desde entonces, y de ellos 15 años los ha pasado en prisión. Nada de resocialización, nada de reeducación, que son los términos que la propia ley emplea: simple y llanamente venganza.*

*Egungo egoeraren irtenbide zentzuzko bakarra aske uztea da, dagoeneko beteak batititu estatu espainiarrak ezarri zion 8 urteko zigorraren ¾-ak baino gehiago. Legeak horixe ezarria du baldintzapeko askatasuna lortzeko, baina urtebete baino gehiago igaro da harrez gero. Baina baldintzapeko askatasuna lotzeko presoak hirugarren graduan egon behar du, eta Aitziber lehen gradua dago kartzelara sartu zenez geroztik.*

*Egoera hau ulertezina da, esplikazio bakarra espetxe arloko salbuespen politikan bilatu beharra dago; izan ere, 7 urte igaro dira ETAk su-eten mugagabea deklaratu zuenetik eta urtebete desegin denetik. Lehen graduan preso oso arriskutsuak edo ez-egokituak baino ez dira egon behar. Baina ez bata ez bestea da Aitziberren kasua. Eta are mingarriagoa da kontuan hartzen badugu duela 16 hilabetetik hona Haitz semearekin dagoela eguneró.*

*Ez du zentzurik Aitziberrek bere bizitza konpartitu ezin izatea Asierrekin eta Haitzekin, ahaztu barik Asierrek postoperatorio benetan gogorra izan duela.*

*Honegatik guztiagatik, hauxe onartu du Durangoko Udalak:*

1. *Kartzela zuzendaritzari eskatzea Aitziber Coello Onaindiari gradu-progresioa ezarri dakiola berehala eta, halaber, indarrean dagoen legediak ezartzen duena betez, dagozkion arauzko neurriak hartu daitezela kartzelatik lehenbailehen atera dadin.*

2. *Eskaera honi jarraipena egitea."*

EZTABAIDA-TARTEA ireki ostean, honako parte-hartzeak ematen dira:

* **Lopez Lakunza jaunak (Herriaren Eskubidea)**: Beti izan dugu giza-eskubideen aldeko iritzia. Hori dela eta, gaur berriro ere, denontzat lege bera aplikatzea aldarrikatzen dugu, inor kanpoan utzi barik. Gaur hemen aurkeztu den eskaera zuzena dela uste dugu eta, horregatik, alde bozkatuko dugu.

*La actual situación no tiene otra resolución razonable que no sea su puesta en libertad. En la actualidad ha cumplido más de ¾ partes de la condena de 8 años que se le impuso en el Estado español. Es lo que fija la ley para poder acceder a la libertad condicional y ya ha pasado un año. Pero para ello hace falta que la persona presa se encuentre en tercer grado, y Aitziber lleva en primer grado desde que entró en la cárcel.*

*Esta situación es incomprensible, y sólo se explica por la aplicación de una política penitenciaria de excepción, cuando ya hace 7 años que ETA declaró el alto al fuego indefinido y cuando hace casi un año que se ha disuelto. Sólo deben permanecer en primer grado aquellas personas presas muy peligrosas o claramente inadaptadas. Ninguna de estas circunstancias concurre en Aitziber. Y todo ello resulta más hiriente si se tiene en cuenta que desde hace 16 meses comparte su día a día con Haitz.*

*Carece de sentido que Aitziber no pueda compartir su vida con Asier, sometido a un durísimo postoperatorio, y Haitz.*

*Por todo ello, el Ayuntamiento de Durango acuerda:*

1. *Solicitar a la DGIP que se proceda a la progresión inmediata de grado de Aitziber Coello Onaindia, a la vez que se adopten las medidas reglamentarias oportunas para posibilitar su más rápida excarcelación, cumpliendo así la legalidad vigente.*

2. *Hacer el seguimiento de esta petición."*

ABIERTO debate, se producen las siguientes intervenciones:

* Concejal **Sr. Lopez Lakunza (Herriaren Eskubidea)**: Siempre hemos estado a favor de los derechos humanos. Por tal motivo, hoy una vez más reivindicamos que se aplique para todos y para todas la misma ley, sin exclusiones. Consideramos que la solicitud presentada hoy aquí es justa, por lo que votaremos a favor.

* **Bravo Zubillaga jaunak (EH Bildu)**: Lehenik eta behin, eskerrik asko Senideak-i mozio hau udalera ekartzearren.

Hala ere, tamalez, udal honetan espainiar justiziari buruz berba egiten dugun bakoitzean pasatzen den moduan, injustizia bati buruz berba egiteko da.

Aitziber duela 15 urte espetxeratu zuten Frantzian, eta han bere zigorra bete ostean, espainiaratua izan zen; Espaineratze horrek Frantzian betetako zigor berdina berriro betetzeko. Zigor hau berriro bete behar izatetik haratago gainera, Espainiak (zein Frantziak) aurrera eraman duen dispertsio politikoa sufritu beharra izan zuen.

Beste kasu guztietan moduan, presoa isolatu eta bakartzeko intentzio hori senide eta lagunen elkartasunek zapuztu zuten, baina azken hauei suposatu izan dien arrisku eta diru eta denbora galerak oso handiak izan dira.

Honek argi erakutsi du espainiar estatuko justizia egundo ez dela horrela izan, eta bergizarteratze eta berreziketa arrastorik eduki ez eta mendekuan oinarritu izan da kasu honetan ere.

Egoera anker honi beste buelta bat eman asmoz, Espainak ez du bere legea ere betetzen, eta orain dela urtebete baino gehiago baldintzapeko askatasunean egon behar zuen Aitziberrek oraindik espetxean jarraitzen du.

Egoera honek ez dauka zentzurik berez, eta are gutxiago Haitz txikiaren eta Asierren egoera ikusita.

Injustizia honen aurrean udala posizionatzea eskatzen digute. Eta horrela egingo dugu EH Bildutik, zelan ez, euskal preso politikoen eskubideen alde egongo garelako beti.

Eta euren eskubideen alde egotetik haratago, preso, senide eta lagunen alboan egon gure dugulako. Alboan egon gura dugu eta egongo gara Durangoko udaletxean, Badajozen, Navalcarneron, Picassenten zein Parisen.

Aitziber, Asier, Haitz eta beste denok, maite zaituztegu eta etxean eta kalean gura zaituztegu behingoz!

* Concejal **Sr. Bravo Zubillaga (EH Bildu)**: En primer lugar, quisiera dar las gracias a Senideak, por haber traído esta moción al Ayuntamiento.

Sin embargo, y desafortunadamente, cada vez que tenemos que hablar sobre la justicia española en este Ayuntamiento es para tratar sobre una injusticia.

Aitziber fue encarcelada hace 15 años en Francia, y, tras cumplir su condena, fue extraditada a España, donde tiene que cumplir una vez más la misma condena ya cumplida en Francia. Además de tener que pasar por lo mismo una vez más, ha tenido que sufrir la misma dispersión política aplicada tanto por España como por Francia.

Al igual que en los demás casos, esta intención de aislar e intimidar la reclusa fue compensada por la solidaridad de sus familiares y amigos, pero el coste económico y la pérdida de tiempo que ello les ha supuesto han sido enormes.

Esto deja de manifiesto que la justicia del Estado español no es tal a día de hoy, y, una vez más, sin ningún atisbo de resocialización y de reeducación, se basa en la venganza.

Con el fin de dar otra vuelta de tuerca, España ni siquiera cumple su propia ley, y Aitziber, quien desde más de un año debía estar en libertad condicional, continúa aún en la cárcel.

Esta situación no tiene ningún sentido, y menos si cabe viendo la situación en que se encuentran el pequeño Haitz y Asier.

Nos solicitan que el Ayuntamiento se posicione ante esta injusticia. Y así lo haremos desde EH Bildu, cómo no, porque siempre estaremos a favor de los derechos de los presos políticos vascos.

Y más allá de estar a favor de sus derechos, queremos estar también al lado de los presos, de sus familiares y de sus amigos. Queremos estar a su lado, y así lo haremos, tanto en el Ayuntamiento de Durango, en Badajoz, en Navalcarnero, en Picassent o en París.

Aitziber, Asier, Haitz y todos los demás, ¡os queremos, y os queremos de una vez en casa y en libertad!

* 4. Alkateordea **Diaz Basterra andreak (EAJ/PNV):** Jakina da beti giza-eskubideak bermatu eta betetzearen alde egongo garela eta ez diogu inolako trabarik ipiniko mozioari.

* 4ª Tnte. de Alcalde **Sra. Diaz Basterra (EAJ/PNV):** Como no podía ser de otra manera, siempre estaremos a favor de garantizar y de cumplir los derechos humanos, y no pondremos ninguna objeción a la moción.

Eztabaida amaitu ondoren, Presidentak gaia bozkatzea proposatu du. Emaitza hauxe:

- Aldeko botoak: HAMAR, 7 Euskal Herria Bildu eta 3 Herriaren Eskubidea.
- Kontrako botoak: BI, 2 Euskadiko Alderdi Sozialista-Euskadiko Ezkerra.
- Abstentzioak: ZORTZI, 8 Eusko Alderdi Jeltzalea.

Hortaz,

UDALEKO OSOKO BILKURAK, gehiengoaren botoarekin, goian zehazturiko mozioaren testua **ONARTU EGITEN DU**.

Finalizado el debate, la Presidencia somete el asunto a votación, obteniéndose el siguiente resultado:

- Votos a favor: DIEZ, 7 de Euskal Herria Bildu y 3 de Herriaren Eskubidea.
- Votos en contra: DOS, 2 del Partido Socialista de Euskadi-Euskadiko Ezkerra.
- Abstenciones: OCHO, 8 del Partido Nacionalista Vasco.

En consecuencia,

EL AYUNTAMIENTO PLENO, por mayoría, **APRUEBA** el testo de la Moción anteriormente transcrita.

## SEI.- ESKAERAK ETA ITAUNAK.

- **Rios Ramos jaunak (Herriaren Eskubidea):** Atzo airearen kalitateari buruzko azterlana jaso genuen. Antza denez, hainbat osagai ageri dira gure udalerrian. Gustatuko litzaiguke jakitea ea azterlana egin duen inor etorriko den gure artera, modu zehatzagoan azaltzera txosten tekniko honek iradokitzen dizkigun galdera guztiak.

  Era berean, ekintza-plan batez hitz egiten du, hainbat errekerimendu egiten zaizkiela enpresa jakin batzuei, eta sailburuordetzan adostutako eta onartutako epe batzuei buruz hitz egiten du. Gustatuko litzaiguke jakitea zer eperi buruz ari garen hizketan, zer adostu den, zertan zehazten den, hain justu, ekintza-plana.

  Beste elementu bat zera da, San Rokeko kabinan ipini den aparteko neurgailu hori; bertan, oraingoz neurgailu horrek egiten dituen neurketak ez daude guztien esku, eta gustatuko li-

## SEIS.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

- Concejal **Sr. Ríos Santiago (Herriaren Eskubidea):** Ayer recibimos el estudio de la calidad del aire. Parece ser que hay algunos componentes que están presentes en nuestro municipio. Nos gustaría saber si alguien que ha elaborado el estudio va a venir a explicarnos de una manera más concisa todas las preguntas que nos sugiere este informe técnico.

  Habla también de un plan de acción, en el que hay unos requerimientos a las empresas en concreto, y habla de unos plazos acordados y aprobados en la vice-consejería. Nos gustaría saber de qué plazos estamos hablando, qué es lo que se ha acordado, en qué se concreta exactamente el plan de acción.

  Otro elemento es un medidor extra que se ha metido en la cabina de San Roke, en la que por ahora los indicadores que genera ese

tzaiguke jakitea noiz egongo den eskuragarri neurgailu hori, txostenean azaltzen diren osagai organiko hegazkor horiek biltzen dituzten datuei buruzko segimendua egin ahal izan dezagun.

Uste dugu inoiz baino beharrezkoagoa dela Udal honetan eta Eusko Jaurlaritzan onartu genuen mozioa, protokolo bat abian ipintzeari buruzkoa, une honetan gertatzen ari denaren tankerako egoera konplexuak edo kutsadura handiko unean agertzen diren neurrian, eta ez dadila izan airean zintzilik geratzen den neurketa hutsa. Espero dugu Osasun Sailak ezarriko dituela parametro batzuk eta herritarrei jakinarazteko protokolo batzuk, indize horiek oso altuak direnean jendeak beharrezko neurriak hartu ahal izan ditzan.

medidor no están a disposición de todo el mundo, y nos gustaría saber cuándo va a estar disponible ese medidor para que podamos hacer un seguimiento a los datos que recogen estos componentes orgánicos volátiles que se han recogido.

Creemos que es más necesaria que nunca la moción que aprobamos en este ayuntamiento y en el Parlamento Vasco sobre poner en marcha los protocolos en la medida que salen situaciones complicadas o situaciones de alta contaminación como la que se ha estado dando ahora, y no sólo sea una medición que quede en el aire, sino que el departamento de salud establezca unos parámetros y algunos protocolos de aviso a la ciudadanía para que cuando esos índices están muy altos, la gente pueda tomar las medidas oportunas.

- **Del Amo Castro jaunak (EH Bildu)**: Legegintzaldia amaituko da laster eta hainbat gai daude lantzeke. Orain komentatuko dudana da gauza oso zehatza eta egingarria, eta da agenda kultural bateratua. Egin genuen eskaera orain dela urtebete baino gehiago eta Alkate-Ordeak esan zigun, tablet batean hatzak astinduz, eginda eta martxan zegoela, baina agenda bateratu bat baino gehiago agenda ezkutua da, oraindik ez baitugu ikusi. Galdera hauxe da: noizko izango dugu agenda?

- Concejal **Sr. Del Amo Castro (EH Bildu)**: En breve terminará la legislatura, y quedan varios temas por tratar. Lo que voy a comentar a continuación es algo muy concreto y factible, y es la agenda cultural unificada. Solicitamos hace más de un año, y la Teniente de Alcalde nos indicó, mostrando una tablet, que estaba hecha y estaba en marcha, pero más que una agenda unificada es una agenda oculta porque todavía no la hemos visto. La pregunta es ¿la agenda para cuándo?

- **Urkiza Quilez jaunak (EH Bildu)**: Guk hainbat txosten juridiko eskatu ditugu. Lehenik eta behin, 2018ko urriaren 18an eskatutako txosten juridikoa gai honi buruzkoa da: postu-erreserba duen izendapen batek zer araubide eta erregulazio dituen, Estaturako gaikuntzarekin toki-administrazioko funtzionarioei erreserbatutako postuetarako.

Bestetik, 2018ko azaroaren 28an beste txosten juridiko bat eskatu genuen, lege-esparru bat garbi ezartzeko; izan ere, iruditzen zitzaigun Udala funtzio publikorako ezarritako legezko lehiaketa- eta oposizio-prozedura saihesten ari zitekeela, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen araberakoa. Kasu horretan, diru-bilketako Administrazioko teknikari

- Concejal **Sr. Urkiza Quilez (EH Bildu)**: Nosotros hemos solicitado diferentes informes jurídicos. Uno, el 18 de octubre de 2018 en el que pedíamos un informe jurídico referente al régimen y regulación al que se acoge un nombramiento con reserva de puesto, para los puestos reservados a los funcionarios de la administración local con habilitación de carácter nacional.

Por otro lado, solicitamos el 28 de noviembre de 2018 otro informe jurídico en el que se establezca el marco legal claro, ya que considerábamos que el Ayuntamiento podía estar evadiendo el procedimiento legal establecido de concursos y oposición para la función pública bajo los principios de igualdad, méritos y capacidad. En este caso, era para

orokorreko postuetarako, erakunde autonomoetarako gerentetarako, eta diru-bilketako administraritarako.

Antza denez, Herritarren Arreta-Zerbitzuan, Kontu-hartzailetzan, eta Pertsonaleko alorrean, arazoak ditugu administrarien lan-poltsekin; izan ere, ez dira kontuan hartu Lanpostuak betetzeko dagozkion jarraibideak. Hori dela eta, txosten bat eskatu dugu horri dagokionez.

Gogoratu behar dugu, 128/2018 Errege Dekretuak, 3.3.a artikuluan, zera ezartzen du: *"Korporazioaren presidenteak hala agintzen duen edo haren kiden herenek hala eskatzen duten kasuen aurreko txostenak jaulkitzea, saioa egin aurretik behar besteko aurrerapenez; txosten horiek adierazi beharko dute kasuan-kasuan aplikatzekoa den legeria, haien egokitasuna eta abar"*.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideei buruzko 39/2015 Legeak jasotzen duenez, txosten horiek hamar eguneko epean emango dira, nola eta ez den eskatzen epea luzatzeko. Ez da halakorik eskatu, ez administrazioaren aldetik, ez gure aldetik.

Halaber, lege beraren 20. artikuluak 1. zenbakian jasotzen duenez, *"Gaiak ebazteko edo bideratzeko ardura duten administrazio-unitateetako arduradunak eta administrazio publikoetako langileak dira, zuzenean, izapideen erantzule, eta hartu beharreko neurriak hartuko dituzte izapideetan sor daitezkeen oztopoak kentzeko, interesdunek eragozpenik, zailtasunik edo atzerapenik izan ez dezaten beren eskubideez baliatzeari edo beren interes legitimoak errespetatzeari dagokionez.."*

Halaber, 21. artikuluak zera dio:

«*1. Administrazioa behartua dago ebazpen espresua eman eta jakinaraztera prozedura guztietan, edozein dela ere prozedura hasteko modua..*

*6. Gaiak bideratzeaz arduratu behar duten administrazio publikoetako langileek, eta orobat instrukzioa egin eta ebazpena emateko es-*

los puestos de TAG de recaudación, Gerente de organismos autónomos, Administrativo de recaudación.

Parece ser que en el SAC y también en Intervención, así como en el área de Personal, tenemos problemas con las Bolsas de Trabajo de los Administrativos, porque no se han seguido las pautas correspondientes para la ocupación de puestos, con lo cual hemos solicitado un informe al respecto.

Cabe recordar que según el Real Decreto 128/2018 en su artículo 3.3.a, *"La emisión de informes previos a aquellos supuestos en los que así lo ordene el presidente de la corporación o cuando lo solicite un tercio de las personas miembros de la misma, con antelación suficiente a la celebración de la sesión, tales informes deberán señalar legislación aplicable en cada caso y adecuación de la misma etc."*

Tal y como indica la ley 39/2015 de procedimiento administrativo, esos informes han de emitirse en el plazo de 10 días, salvo que se solicite una ampliación de plazo; no se ha solicitado la ampliación ni por parte de la administración ni por nuestra parte.

Asimismo, cabe indicar, según dice el artículo 20 de la misma ley en su punto 1, que *"Los titulares de las unidades administrativas y el personal al servicio de las Administraciones Públicas que tuviesen a su cargo la resolución o el despacho de los asuntos, serán responsables directos de su tramitación y adoptarán las medidas oportunas para remover los obstáculos que impidan, dificulten o retrasen el ejercicio pleno de los derechos de los interesados o el respeto a sus intereses legítimos, disponiendo lo necesario para evitar y eliminar toda anormalidad en la tramitación de procedimientos."*

Asimismo, el artículo 21 dice:

*"1. La Administración está obligada a dictar resolución expresa y a notificarla en todos los procedimientos cualquiera que sea su forma de iniciación.*

*6. El personal al servicio de las Administraciones Públicas que tenga a su cargo el despacho de los asuntos, así como los titulares*

*kumena duten administrazio-organoetako titularrek, zuzeneko erantzukizuna dute, bakoitzak bere eskumen-eremuan, epe barruan ebazpen espresua emateko legez ezarrita dagoen betebeharra konpli dadin.*

*Betebehar hori konplitu ezean, diziplina-erantzukizuna galdatuko zaie, aplikatzekoa den araudian ezarritako erantzukizunaz gainera."*

Gure eskaera zera da, idatziz aspaldiko hilabeteetan eskatuta dauzkagun txostenei erantzutea, epea gaindituta daukaten aldetik.

Alkatesa **Irigoras Alberdi andreak (EAJ/PNV)**: Herritarren arreta-zerbitzuko lan-poltsa aipatu duzue, eta mugikortasuneko laguntzailearena. Gai hori bidali zen aurreko Ogasun Batzordera, eta egin dut galdera Pertsonalean. Giza Baliabideetako arduradunak zera ziurtatu dit, bete dela Udal honek sindikatuekin adostuta daukan protokoloa.

Txostenen gaiarekin lotuta, baliteke hala izatea, baina aipatu diren diziplina-erantzukizunek beti funtzionarioen erantzukizunei egiten diete erreferentzia zuzenbide administratiboan, eta, horrenbestez, entzundakoaren ondorio gisa, ez daukat beste erremediorik, eta ireki beharra dago diziplinako espediente bat linean eragindako langileekin, EH Bilduk azaldutakoaren ildotik, eta helarazi beharra dago eskaria egoki denari.

Agenda Kulturalarena galdetu da, eta nik uste dut aurreko plenoa baino lehenago idatziz erantzun bat jaso zenutela; ez dakit seguru EH Bilduk eta Herriaren Eskubideak jaso zuen erantzuna, baina idatzizko erantzun baten bota genuen.

Herriaren Eskubideak egindako galderaren inguruan esan behar dut nik hau erregu moduan jaso dudala, neuk ere eskaera hau bota behar diot eskudun administrazioari, Eusko Jaurlaritzari hain zuzen ere. Protokoloarena gaur goizean ibili gara erantzuten, baina bihar goizera arte ez zaizue helduko.

*de los órganos administrativos competentes para instruir y resolver son directamente responsables, en el ámbito de sus competencias del cumplimiento de la obligación legal de dictar resolución expresa en plazo.*

*El incumplimiento de dicha obligación dará lugar a la exigencia de responsabilidad disciplinaria, sin perjuicio de la que hubiere lugar de acuerdo con la normativa aplicable».*

Nuestro ruego es que se responda a los informes que tenemos solicitados por escrito con meses de antelación y ya se ha pasado el plazo.

Alcaldesa **Sra. Irigoras Alberdi (EAJ/PNV)**: Se ha mencionado la Bolsa de trabajo del SAC y Auxiliar de Movilidad. Este tema ya se trasladó la pasada comisión de Hacienda y he hecho la consulta en personal, y la responsable de Recursos Humanos lo que me ha asegurado es que se ha seguido el protocolo que se tiene adoptado en este Ayuntamiento acordado con las fuerzas sindicales.

Respecto al tema de los informes, es posible que sea así, pero la responsabilidades disciplinarias de las que se ha hecho mención hacen siempre referencia en derecho administrativo a las responsabilidades de los funcionarios y, por lo tanto, como consecuencia de lo escuchado, no me queda otro remedio que abrir un expediente disciplinario con los trabajadores afectados en la línea que se ha expuesto por parte de EH Bildu y proceder a manifestar el ruego a quien sea oportuno.

Sobre el tema de la agenda cultural, ya se ha preguntado y yo creo que, antes del pleno anterior, recibieron ustedes una respuesta por escrito; no estoy segura si la respuesta fue trasladada a EH Bildu o Herriaren Eskubidea, pero se remitió una respuesta por escrito.

En cuanto a la pregunta realizada por Herriaren Eskubidea, tengo que indicar que lo he recibido como ruego, y yo también tengo que trasladar esta solicitud a la administración competente, en este caso al Gobierno Vasco. En cuanto al protocolo, esta mañana hemos redactado la respuesta, que les llegará mañana.

Gai-zerrendan jasotako asuntoak amaitu ostean, eta 17:40ak direnean, alkate-presidenteak amaitutzat ematen du batzarra, eta akta jasotzeari ekiten zaio; eta nik, udalbatzako idazkari nagusia naizen honek, fede ematen dut.

Y HABIENDO finalizado con los asuntos comprendidos en el Orden del Día, siendo las 17:40 horas, por la Alcaldesa-Presidenta se da por finalizada la sesión, levantándose la presente Acta; de todo lo cual yo, como Secretario General de la Corporación, doy fe.